

9.EZAGUTZA ZIENTIFIKOAREN SOZIOLOGIA: PROGRAMA SENDOA

Zientzia gizartearen osagai garrantzitsua bilakatu da eta beraz, gizarte-indarrek eragiten diote. Zientzia-jarduera berez soziala da, hortaz, kooperazioa eta lehia, besteak beste, ditu ezaugarri. **Soziologiak zientzia-jardueraren gaineko muturreko ikuspegi kritikoa garatzen du: Programa Sendoa.**

Soziologizatzeko-prozesu honetan, Kuhnek mugarri bat markatu zuen. Zientzia-jarduera ulertzeko asmoz, zientziaren historian *benetan gertatutako pasarteak* aztertu zituen. Benetan zientzia-jarduera nolakoa den ulertze aldera, interprete batzuen arabera, **teoria edo hipotesi zientifiko baten onarpenean garrantzitsuak diren eragile kasual -soziologiko- guztiak aztertu behar dira.** Horixe da *konstruktibismo sozialaren*

Helburua, eragile horietan arakatzea, hain zuzen ere. **Konstruktibismo sozialaren baitan kokatu behar da Programa Sendoa.**

Kritika honen arabera, zientziaren metodologia eta berezko balioak bigarren maila batera igarotzen dira. **Zientziagintza, praktika eta instituzio sozial gisa, interes ekonomiko, politiko edo generozkoen atzaparretan dago,** eta interes horiek zientzia-jardueraren giltza ematen digute. ZBBak propaganda tresnak dira eta benetako interesak estaltzen dituzte.

Adibide bat: Boyle zientzialaria eta Hobbes filosofoaren arteko hutsaren existentziaren gaineko eztabaida. Lehenengoak hutsaren existentzia laborategian frogatu daitekeela dio eta bigarrenak arrazoi filosofikoengatik ezinezkoa dela. Shapin eta Schaffer-ek esan dute metodologia zientifikoaren gaineko eztabaida dela, hau da, Boylek metodo experimentalak aldarrikatzen duela eta Hobbesek metodologia arrazional-filosofiko bat. Hauen ustez, eztabaida hori ikuskera politiko desberdinen isla baino ez da -Boyle demokraziaren defendatzailea dela eta Hobbes monarkia absolutuarena-, are gehiago, hutsaren existentziaren auziaren muina ideia politiko-ekonomikoetan dagoela.

Zientziagintza ze zentzutan da jarduera soziala? Susan Haack filosofoak bi zentzu bereizten ditu: jarduera zientifikoa talde-lana den heinean eta lankidetzeta eta lehia haren ezaugarriak diren neurrian, jarduera soziala da. Soziologiak beraz, ekarpen interesgarriak egin ditzake. Bestetik, *Programa Sendoa* ulertzen den bezala, zientziagintzaren alderdi sozialak ezerezean uzten ditu ezaugarri epistemikoak. Honen jarraitzaileen arabera, ezagutza zientifikoa negoziazio sozialaren inguruko prozesuen emaitza baino ez da. Haacken ustez, lehena zuzena da eta bigarrena okerra.

Programa Sendoa XX.mendeko 70.hamarkadan sortzen da Edinburgon, Barry Barnes eta David Bloor ordezkari nagusi. Helburu nagusia zera da: teoria zientifikoaren edukia azaltzea kausa soziologikoak erabiliz. **Soziologiak gure ezagutzaren edukiaren giltza eman behar digu.**

Programaren helburuak zehazterakoan lau erregela aipatzen dituzte bi ordezkariak:

1. Zientziaren soziologia kausala da.
2. Egiarekiko edo faltsutasunarekiko neutrala da zientziaren soziologia.
3. Simetria aldarrikatzen da.
4. Erreflexiboa da.

Barnesek eta Bloorrek *egia, uste izatea, ezagutza* bezalako oinarritzko kontzeptuak ia- ia modu berean definitzen dituzte: "kontua da jendeak zer uste duen, eta uste hori jende askok konpartitzen badu egiaz edo ezagutzaz ari gara". **Programa Sendoa egia, ezagutza edo justifikazio kontzeptuek izaera arauemailea galtzen dute** eta kontzeptu deskriptibo huts bihurtzen dira: zer uste dugun eta zer uste behar dugun nahasten dira.

Simetria-printzipioak zera esan nahi du: berdin-berdin azaltzen direla egiazko usteak edo uste faltsuak. **Programa Sendoaren arabera, usteen edo sinesmenen finkapena azaltzeko aintzat hartu behar dira kausa soziologikoak, alde batera utziz arrazoi epistemikoak eta ustea egiazkoa edo faltsua den.** Pentsalari hauen arabera ezagutza litzateke jendeak uste duena, aintzat hartu gabe uste horiek arrazionalak edo egiazkoak diren.

Bide askotatik eskuratu ditzakegu usteak, zientifikoak edo ez-zientifikoak eta berdin-berdin eskura ditzakegu egiazkoak, faltsuak, arrazionalak edo irrazionalak. Hori da simetria-printzipioak aldarrikatzen duena. Baina kausa soziologikoetatik harantzago, egiaz edo errakuntzaz edo objektibotasunaz mintza gaitzke ustei buruz mintzatzean eta beraz, **balio epistemikoek garrantzia dute gure usteen gaineko eztabaidetan.** Modu berean azaltzen badira egiazko edo faltsuak, arrazionalak edo irrazionalak diren usteak, eduki horiek justifikazio epistemikoetatik kanpo azaldu daitezke eta horrek *konstruktibismo* gogorra dakar: **usteen edukia bakarrik azaldu daiteke kausa soziologikoetan.** Horrek baztertzen du eztabaidarako aukera.

Donald Davidson-ek ideia interesgarri bat mahaigaineratzen du: uste egiazko eta faltsuen artean ezin da simetriarik egon; simetria ez da erreal. Simetria balego erabateko erlatibismoan eroriko ginatke. Uste guztiak maila berean leudeke, eta posible litzateke pertsona batek eta nik neuk erabat desberdinak diren usteak edukitzea. Baina hori ezinezkoa da, uste asko eta asko partekatzen ditugu, bestela ezinezkoa litzateke interpretazioaren bidean abiatzea. Usteen gaineko desadostasunak posible dira uste partekatu askoren zoru gainean. **Besteek zer uste duten ezin da interpretatu egiaren eta faltsutasunaren arteko asimetria onartu gabe.**

Boghossianek planteatutako simetria-printzipioaren beste arazo bat: **askotan, egiazko usteen justifikazioak ez du azalpen soziologikorik behar.** Adibidez: nik euria ari duela ikusten dudalako euria ari duela uste badut, euria egiteak kausatzen du nire egiazko ustea. Eman dezagun aldameneko beste pertsona batek uste duela ez dela euria ari, nahiz eta biok berdin-berdin ikusten dugun. Kasu horretan, azalpenari dagokionez, asimetria dago uste egiazko eta faltsuen artean.

Azkenik, zergatik soziologia? Zientzia gizarte-jarduera bat dela arrazoi bat izan daiteke baina zientzia ez al da jarduera psikologiko bat? Edo historikoa?

Gainera, *Programa Sendoaren* printzipioak bere buruari aplikatuz gero, *Programa Sendoa* bera ere egitate soziologikoen sare batek kausatu duela ondoriozta daiteke.

Programa Sendoaren haritik, ezagutza gizarte-eraikuntza dela aldarrikatzea kontu nabaria da, baina bertan balio epistemikoek esku hartzen ez dutela aldarrikatzeak arazoak dakartza.

Beste pentsalari batzuek *egitateen konstruktibismo soziala* ere aldarrikatu dute. Egitateak berak goitik behera guk eraikitzen ditugula esanez.

Agustinen ustez, konstruktibismoa zentzuzkoa da uste eta egitate mota batzuen kasuan, arazoa sortzen da planteamendu hori esparru guztietara zabaltzen denean.